

Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 20a

Eusko Jaurlaritzak hauteskunde-mahaietarako jarraibideen Eskuliburua onartu du, bai eta Hauteskunde Administrazioarako 2,4 milioiko gastua ere.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak hauteskunde-mahaietako kideentzako Jarraibideen Eskuliburua onartu du, Eusko Legebiltzarreko 2009ko Hauteskundeetarako. Halaber, Hauteskunde Administrazioarako 2,4 milioiko gastua onartu du.

Eskuliburuarekin batera 10 minutuko iraupena duen multimedia CD bat banatuko da. Testuak eta irudiak ditu eta hauteskunde mahaietako kideentzako prestakuntza errazteko balio du. Diskoak hainbat test dauzka, auto-ebaluazioa egiteko.

Era berean, ikusmen-urritasuna izan eta Braille sistema ezagutzen dutenek botoa emateko prozedura jasotzen du dokumentuak. EAEko hauteskunde autonomikoetan lehenengo aldiz aplikatuko da sistema hori. Botoa horrela eman nahi duten lagunek doako 900.840.899 telefonoan egin behar dute eskaera aldezturik; Eusko Jaurlaritzak martxan jarrita dauka dagoeneko zerbitzu hori. Gainerako herritarrentzako, hauteskunderi buruzko informazioa emateko telefonoa 012 da, Eusko Jaurlaritzak herritarrei arreta emateko telefonoa, hain zuzen ere.

Eskuliburuak Hauteskunde-batzorde zentralaren 2007ko instrukzio bat jasota dauka. Horren arabera, baliogabekoa izango da txartelean edozein aldaketa daukan botoa. Aldaketa diogunean edozer gehitzea, ezabatzea, aldatzea, markak egitea edo edozer idaztea izan daiteke, edo apurtuta egotea.

Hauteskunde-batzorde zentralak eta EAEkoak gainbegiratu dituzte Eskuliburuaren eta CDaren edukiak.

Bestalde, beste Akordio batean, Kontseiluak 2,4 milioi euroko partida onartu du, Hauteskunde-administrazioako funtzionamendu nahiz langileria gastuetarako. Aurrekontu hori 2005eko hauteskunde autonomikoetakoa baino %8 handiagoa da. Gastuaren zatirik handiena, 1,9 milioi, udalen eta hauteskunde-mahaietako langileen gastuak ordaintzera bideratuta dago. EAEko hauteskunde-batzordeek 431 mila euro dauzkate, Akordioaren arabera, hauteskunde hauetarako.